

E U S K A R A R I

nola Iraupen eman

1910

Aditurik gaude, trufaz edo zinez erraten, eraskuntza baten bilkhuran erasatea, bilzar-laguneri nekhe baten eratchikitzea dela, eta eraskuntza beraren, bilkhurako chehetasunekin, zeini bere etchetarat hel-araztea, gehiagoko nekhe baten hekieri eratchiki nahi izatea.

Errankizun hoikieri ihardets dakiokete, eraskuntza baten nork berak moldatzea eta bilkhuran haren adiaraztea, are gehiagoko nekheak direla; bainan, *Euskal-Herria* zer bedaduretarik nolako muga hertsietarat sar-arazia den, eta *Euskara* zer distiraduratik nolako itchura hitserat eroria den ikhus dezakenari, ez zaizkola guphidesgarri behar iduritu, Herriarentzat eta Mintzairarentzat har detzaken, ez gogoko ez gorphutzeko nekheak, ez eta ere beharrik halitz, gauetik egunaren egite, biziaren higatze eta odolaren ichurtzeak.

Horra bada zer ikusiz, ez dugun oraiko huntan ere guphidet-siko, zuen aintzinean mintzatzea, eman nahi darokuzuelarik aphur baten atzartasuna.

Guziek dakiguna, Jaunak, eta gogotik gal ez dezakeguna da, Bilzarraren chede bereziena dugula, Euskarari *iraupen* ematea. Hori izatu da eta izanen ere da, bilkhuretako gure aiphua, hori den eta izan behar ere den hezala, bethiereko gure leoa.

Horri darraikola, duela biurtheiko gure solasa ginduen errateko, Euskarari *iraupen* ematea ez dela deus bertzerik, baizen ere *Euskaraz mintzatzea*, zeren eta, erdaraz mintzo garen aldietan, lokhartzerat uzten baitugu Euskara, eta lo hori aski luza lakioken eta, bezterik ez bailiteke, baizen ere Euskararen *bethiereko lo* edo *heriotzea*. Horri baitarraiko Euskaraz mintzatzeko badu-

gula, etchean eta etchetik kampoan, Euskalduna Euskaldunarekin aurkhi gaitzekin urhaspide guzietan.

Orai urtheko bilkhuran, urhats bat gehiagokoa egin-arazi gindioen solasari, erranez, batbederak, Euskaraz mintzatzeko gure urhaspideari, jarraikitasun gehiagoko bat eman dezokegula, ez baxharrik nolazpeit Euskaraz, bainan *Euskal-hitz garbiz* eta geroago eta garbiagokoz mintzatuz : egiten den gauza, erdal-hitzak ahalaz bazterrerat utziz, eta gutartean galduak edo galtzerat emanak diren hitzak, batzu bertzetarik bilduz eta gure solasetan sar-araziz : zeren eta, edo zein gauzetan bezala, gauza hortan ere, garbikiago mintzo garelako atseginak, susta bailezake mintzairarentzateko gure amodioa eta borthitz euskaraz mintzatzeko hartzen hasia ginduken jarraikitasuna.

Huna bada aurthengo huntan ere, orai berean huna, gehiagoko berteze urhatsbat, erran den euskararentzateko amodioan, eta euskaraz mintzatzeko jarraikitasunean, oraino hobeki borthitz eta susta gaitzakena. Hura dukegu aiphatzerat deramagun *Euskal-hizkuntzaren urhatsa*.

Bertzerik da, Jaunak, *hitza* eta bertzerik *hizkuntza*. Hitzak baxharka dabilta, erran nahi denaren erraten; hizkuntzak bizpahirur hitz gutienetik, edo gehiago bereak baditu. Hitz bat dugun bezala *ahoa*, hitz bat *begia*, eta hizkuntza bat, *ahotik eta begitik ematea*, hiruzpalaur hitz bereak badituena: hala nola nahi denean adiarazi; ezteilier eta bestalier bati, edo adiskide hortz oneko urrundik dathorkigun bati, jan-edana mahainerat atheratzeko diogula, ez zuhureta murriz. bainan eder eta nasai, haina hark barnearentzat gozagarri eta begiarentzat zoragarri dukeen bezala : emateko zaiola *ahotik eta begitik*.

Mintzaira guziek badituzte beren hizkuntza, beren mintzamolde berezi, edo *idiotismoak*. Frantses erdarak bere gallizismoak baditu; latinak eta grekak bere latinismo eta ellenismoak badituzte; euskarak baditu bere kantahrismoak; eta bere hizkuntza berezien ongi erabiltzetik dohako mintzaira bati bere itchara, berteze mintzaira batena ere ez bezalakoa, goersten eta ederresten duena. Hala nola, atze-mintzairerako hizkuntza baten bere hitzetan nolazpeitka sar-arazteak, mintzaira aphalesten, ahulesten eta itsusten bailuke. Huna gerthakari chume bat. — Duela berrogoi eta hamar bat urthe, aphez-gai lagun bat eta biak aurkhitu ginen, lagun haren herriko meza nausian. Herriko artzainaren orde, misionest batek zituen meza-bezperak. Huna bada predika-alkhitik eman zituen lehembiziko hitzak : « — Girstino

maiteak, Aiharreko herri hunentzat *badut flako bat*, hemen eman nuelakotz nere misione guzietarik lehembizikoa, » Nere laguna, ez ni, ez gintuzten Euskararen garbitasunari, ez edertasunari, nihork ohart-araziak; bainan ginen, bata nola bertzea, euskal-herri bethean haziak, etcheke eta hauzoko euskaldun garbierkin bethi ihardoki ginduenak. Aditu gindioelarik bada, erdal-hizkuntza frantses hau : *J'ai un faible pour cette paroisse, euskaraz ematen, zioelarik : Herri hunentzat badut flako bat*, biek behehitu gintuen buruak, eta ukhondoaz elgar ukitu ginduen. Aita maite harek, Jainkoak bere lorian duela, ez bazezaken salhatu gabe atchik bere barneko berria, erran zezaken, euskal-hizkuntza garbiz : *Herri hunentzat badut halako bat, atchikitasun berezi bat*. . . eta bertze itchurarik zukeen haren Euskarak.

Nahi badugu beraz, Euskaraz mintzatzeko jarraikitasun den handieneko bat gure baithan ezagutu, nola euskal-hitz ahalaz garbiak, hala *euskal-hizkuntza* eder eta garbiak behar ditugu *altchatu*, artha handiz bildu, eta gure bethiereko solasetarat *sarrazi*.

Huna gure kantabrismo hetarik zembeit. Banituzke hemen ehun batez gainetik; hogoi bat baxharrik emanen ditut, bere kideko edo arabera gallizismoak eratchikitzen diozkatedalarik ondolik:

KANTABRISMOAK.

1. Adin gabe ethorri.
2. Aho churi (Jan edanean).
3. Ahotik eta begitik.
4. Argi lehenka.
5. Argiaren begiko.
6. Are gehiago.
7. Are gutiago.
8. Atsegin sari.
9. Badu bertze sabeleko minik.
10. Behinik behin.
11. Bana bertze.
12. Bera noin balitz.
13. Ez da haratik ez hunatik.
14. Hirriak sarthu.
15. Ikusi bezain sarri.
16. Nahas mahas.
17. Nik erran behar banu.
18. Ondoren ondo.
19. Oraitik sarri.
20. Zakhu gaizki josia.

GALLIZISMOAK.

- Prématurément grandî.
 De goût difficile.
 En veux-tu, en voilà.
 Prévenant l'aurore.
 Aux premières lueurs du jour.
 D'autant plus.
 D'autant moins
 Pour le plaisir d'obliger.
 Il a d'autres soucis.
 Tout au moins.
 L'un dans l'autre.
 S'il était à hauteur.
 Il n'y a pas à dire.
 Il ne plaisante plus.
 A peine vu.
 Sens dessus dessous.
 A mon humble avis.
 De père en fils.
 D'un moment à l'autre.
 Mal accoutré.

21. Sasiz sasi, mendiz mendi.	Par monts et par vaux.
22. Lanez ithoa.	Débordé de travail.
23. Zauriaren gainean phikoa.	Blessure sur blessure.
25. Churi churia.	Tout blanc.
26. Dena den.	Tel quel.
27. Edo zein.	Le premier venu.
28. Gerthakariak hala emanik.	Par un concours de circonstances.
20. Gibelaz jarri.	Devenir hostile.
30. Gogoak hala emanik.	Se figurer.
31. Goiz goizetik.	Dès le matin.
32. Guziaren buru.	En fin de compte.

Hizkuntza hoitarik erran daiteken baino gehiago badire, eta hetarik ahal direnak, gure *zuhur-hitz*, aiphagarrienen eta gure *eraskitz* molde berezieneko batzuen batasunean emanik, liburutto bat argitara lezakenak, gauza baliosenatarik bat egiten luke *Euskararen alde*.

Eta orai galdetzen darotzuet, erran den urhaspide guzia atchik gindezaken eta, Euskarari bilhatzen diogun iraupenaren emateko, aski egitea othe laiteke? Ondikoz! ez, Jaunak, ez! Bainan adi zazue, Euskalzale ditugun hoberenatarik biek gauza hortaz goraki derasatena.

Nere Jaun Julien Vinson. Kuskara barnadanik ikhasia duen kampotar Jakintsunak zioen, jazko ephailaren 13^{ean}, gerthakariak hala emanik :

« — *Euskara, erdal mintzairekin oraiko urhatsez nahasta dadien eta, bide handiz suntsitzerat abiatua da*. — Eta, jazko buruillan, itsas bazter hautan zembeit astez egotu eta hanitz Euskaldunekin solastatu zelarik, zioen : « — Ez dezaket erran, *azken hamabortz urthe hautan, bere garbitasunetik zembat galdu duen Euskarak*»

Eta Jaun Euskalzale hori kampotar delakotz, ez badaroku horren hitzak hala jotzen barnea, huna Euskalzale euskaldun, nik uste dugun argituenaren bi hitz, barnagodanik gogoeta-araz gaitzaketenak. Zioen Jaun horrek behin, Bilza-lagunen bilkhura batean :

« — *Laster ez da gure Errietan besterik irauteko, gure mendien izen zaarrak baizik; eta, nork daki, bear bada mendi goititu oiek: ere lotsez beteak, gure kopetak bezala zapalduko eta zelaiatuko dira*. » — Eta Jaun horrek berak, Guipuzkoako euskaldun khartsuenek eta euskalzale argituenek mintza-aldi baten egiterat deithu zutelarik, Donostiako bere mintza-aldi orhoitgarri batean, gogoan zituelarik naski, Nafarroako hego-aldeak,

gure orhoitean, herri beherako zelhai zabal eta aberatsean, galdua duen Euskara, zioen : « *Euskara, menderen mendez libertatearekin baizik bizitzen ez zakiena, ihes eginez doha mendietarat, nahi balu bezala zerutik urbillago erran bere azken hitza, eman bere azken hatsa.* »

Hitz hoik adiarazi zituena, Euskal-Herriaren eta Euskal-Mintzairaren argi distirantena da; gure Bilzarreko buru-lehen urthez egoturik, bilzar-lagunen lerroko buru buruan, *Buru-Lehen oho-rezko* bethikotz ezarria, egun ere ez duena guphidetsi gureganak biltzea : *Don Arturo Campion*, Senor excellentisimo, Nafarroako deputatu ohia. (Hemen bilkhura guziaren esku-zarta ezin ichilduzkoak.)

Eta orai, Jaunak, hitz auhendagarri horiek, Erdal-Herritik eta Euskal-Herritik gureganatuak ditugularik, erran othe gindezake sobraniozko direla?

Ez, ondikoz! ez, gauzak oraiko urhats dohakabez aintzinatze-kotz, goizchago edo berantchago bururatzen ikustekoak gintuzke.

Aitzitik ordean, Jaunak, urhaspide dohakabe guziak hauts detzakenik bagindaki badela zerbeit? Ordutik naski bertzerik gerthitzen ahal laiteke! Huna bada, nik erran behar banu, bi gauza, lehenbailehen egitekoak ; eta, zer nahi gasta beharrik ere, ez alegiaka, bainan errotik egitekoak.

Bata? *Euskara Semenari handitan irakatsia izatea.* Duela hamar bat urthe, gauza hori Aphezpikutegian galdetua izatu zen. Bainan, *Nere Jaun Jauffret* aphezpiku zenak, Semenarioko buruzagiaren erranetik, ez zuen densik onhetsi nahi izatu. Jainkoak bere lorian duela, eta arimeri egin dioten onaz sarista dezala! Euskarari laguntzarik egin dioelakoaz ez du saristatuko, ezeta guk ere ez dugu goretziko.

Bainan, duela zembeit hilabete, *Nere Jaun Gieure*, gure Jaun aphezpikua buru, Obra katolikoeri eta horien alde diren urhats batzueri behatzen denaz, bizpahirur egunetako, bilkhurak zituztelarik, *Nere Jaun Hiriart-Urruty* kalonjeak, Euskararen alde mintzo zelarik zioen, badaitekela ez duen luzatuko, Semenari handitan Euskararen irakatsia izateak. Hitz horiek zakhartzan eraskuntza, Jaun Aphezpikuaren aintzinean frantsesez egiri zen, eta Jaun Aphezpikuak galdetu zuen, izan zadien euskararat itzulia eta diosesako euskal-herri guzian igande egunean irakurtua.

Bitoria-ko, Iruña-ko eta *Baiona-ko* Semenarioetan *Euskara* irakats laitekeen eta, garbiago, argiago eta ederrago lohake elizagizonekin herrietarat.

Bertzea? *Euskal-Herri guzian, bai euskara ahanzterat utzia duten herrietan ere, eskoletan edo eskoletarik kampo, erdara-rekin edo erdara gabe, euskara irskatsia izatea.* Ez naiz chehe-tasunetan sarthuko.

Euskal-Herriko gizon handieri dohakote, bertze gauza behar-enak bezala, ganza hori gogoan hartzen eta hortaz elgarrekin ihardokitzea.

Mendiz hunateko Euskaldunak, ahur bat baizik ez gare. Gu zer garen ikusteak, non nihor larderia dezake? Guri gauza hor-ren onhestea, ez da noizpeit bertzerik izanen, haizen ere guri den gutieneko ikustate baten egitea.

Mendiz harateko anaiaak, hedaduraz eta bihotzez botheretsu dire. Gauza znenbidezko bat, nahi izateaz geroz ardiesteko mol-dez galde dezakete.

Eta hemen errateko, eraskuntza luzegi hau bururatzten dugu-larik, adiarazi den urhaspideari artha handiz balimbagarraizko, eta azken bi gauza horiek urhats onean sartzen ikusi beharrez atzarriak balimbagabiltza, hortan agertuko da, zorionez! gure soseguarentzat baino, Euskararen iraupenarentzat khar gehiago badugula; eta deusek ezin hautsizko arbasoen seme egiazko-larik garela!

Martin LANDERRECHE, apheza.

Donibane-Lohitzunen, agorrillaren 25^{em} 1910 garrenean.

